

68KO MAIATZA

Aurtengo urteak dakarskuz gogora, orain 50 urte, Parisen, maiatzean, gertatutako mobilizazioak. 1960ko hamarkadan gazte ginanok hainbat jazoera ditugu gomutan. Besteak beste, honeek aipatu geinkez: Vatikanoko II. Kontzilioa, Berlingo harreresigintza, Kubako krisia, John eta Robert Kennedy anaien eta Martin Luther Kingnen hilketak, Vietnango gerra, Maoren iraultza kulturala, ETaren lehenengo hilketak, Pragako udabarrria, iretargira lehenengoz igotzea, bihotzaren aurreneko transplantea, Beatlesen sekulako lilura... Baina Parisko 68ko Maiatza, baliteke izatea, hamarkada horretako ikur berezia.

Hasiera baten, estudianteen eta irakasle askoren helburua Unibertsitateko estrukturak aldatzea besterik ez zan. Maiatzaren 2an, Parisko Nanterre deritxon Unibertsitatean biztu zan sua. Hurrengo egunean, ikasleen manifestazioak Sorbona harrrapatzen dabe. Segidan Frantziako beste unibertsitateak ere bai...

Estudianteak eta industriako langileak alkartzen diranean, gauzak geroago eta gogorrago doaz. Maiatzaren 13an antolatutako greba orokorrak, inoizko arrakastarik handiena lortzen dau! Hamar milioitik gora dira bertan parte hartzen dabenak. 17tik aurrera mugarik gabeko greba egitea erabakitzen dabe. Ezkertiarak bat eginda dihardue. Bazterretan “Internazionala”, “Marsellesa” baino gehiago entzungo da. Batera datoz jo eta ke: komunistak, marxista-leninistak, troskistak, maoistak, kas-

tristak, hippiak, freudistak, kolore guztietako akreatak, antiinperialistak, sistemaren kontrakoak eta nor ez...? Inguru guztietan barrikadak, autobusei su emotea, amaibako kale-borrokak, istilu eta iskanbilak nonahi, enpresak erre, hormak eslogan zikinez josi eta zer ez...?

Frantziarrak bildurtuta! Gobernu nora ezean! Eta maiatzaren azkenerantz, Charles De Gaulle presidenteak “Batzar Nazionala” eten eta hauteskundeetarako deialdia egiten dau, Frantzia komunisten erpeetan jausi ez dadin. De Gaullek itzelezko garaipena lortuko dau hauteskundeetan. Aipagarria!, 487 legebiltzarkidetik, 358 diputatu izango ditu bere aldekoak. Iraultzaileak ez eben holako porrotik itxaroten. Demokrazia-
ren arrazoiak mantsotzen ditu errebolta-riak.

Eta Frantzia, ezusteko bildurgarrizko ikara gorria jasan ondoren, badoa normalizatuz. Baina begi-bistan diraue ondorio larriak. Horra hor 68ko Maiatzaren emoitza aipagarrienak: erlatibismo morala (“debekatu debekatzea”), familiaren hondamena, autoritatearen aurkako psikosia (“ez Jaungoikorik eta ez buruzagirik”), hippien erreboluzio sexuala (“jo narrua eta ez egin gerrarik”). Esaterako, Cohn-Bendit, Nanterreko filosofia eta letren fakultateko gazteen iraultzaileen buru egiten ebanak, Kulturako Ministroa unibertsitatera joan zanean, haxe eskatu eutson gazteen izenean: “Unibertsitateko logeletan neska-mutilak alkarrekin nastauta lo egitea”. Gazte gehienen asmoa alkarrekin “ligatzea” eta onestasunaren aurkako abusuak ziran helburu erakargarrienak. 68ko gazteen helburuak ez ziran goi-mailako idealak bilatzea. Industriako langileekin bat egiten dabenean, gazte asko holako asmoak iruntsita gertuko dira.

Hala ere, Parisko 68ko Maiatzak eragin itzela izango dau Europa mendebaldean zehar. Bereziki, Alemanian, Italian, Belgikan, Holandan, Espainian. Baita Ipar eta Hego Amerikan ere. Nahiz eta nazio bakoitzean arazo desberdinak xaxatu.

Gure artean, frankismoaren aurkako borroka izango da jomuga demokrazia sustatzeko...

68ko Maiatza eta Vatikanoko II. Kontzilioa

Vatikanoko II. Kontzilioa hasi zan 1962ko urriaren 11n eta amaituko da 1965eko abenduaren 8an. Bertan hartu eben parte 2.540 gotzainek eta Aita Santu bik. Kontzilioaren hasieran Joan XXIII.ak eta hau hil ondoren, Paulo VI.ak amaitu arte. Beste mila bat lagun ere baziran: adituak, entzuleak eta beste kristau Elizetako zuzendari eta begiraleak.

Vatikanoko II. Kontzilioko dokumentuak euskeraz argitaratu ziranean, hauxe inoan orduko Bilboko Gotzaina eta gaur egun Valladolideko artzapezpiku eta kardinal dan Ricardo Blazquezek: "Vatikanoko II. Kontzilioa Eliza Katolikoaren gertakariarik garrantzitsuena izan da XX. mendean, gainerako erlijio kristauetan eta gizadi osoarengan eragin aparta izan duena. Mendearen lehenengo erdian, Jainkoa, bere probidentzian, apezpikuen batzar nagusi hura prestatuz joan zen, eta azkenengo hamarkadak Vatikanoko II.ak biziki markaturik egon dira. Hura gabe ezin ulertuzkoa izango zan Elizaren oraingo bizitza.

Lau ziren Kontzilioaren asmo nagusi edo helburuak: fededunen kristau bizitza indartzea, aldatzekoak diren erakundeak gure garaiko premietara egokitzea, kristauen arteko batasuna bultzatzea eta oraingo munduarekin harremanak estutzea, ebanjelizazioa errazten duen elkarrizketako jarreraz. Helburu hauek indarra hartuz zihoazen, gogoari arnasa emanez Kontzilioa egiten ari zen bitartean, areto barruan egiten ziren Kontzilioko eztabaidetan, aurreko eta inguruko solasaldi ugarietan. Kontzilioak lagun izan zuen eta hura bildu zuen eliz eta teologi giroan, gizarteak jarri zion arretan, promulgaturiko dokumentuetan.

Denborazko distantziak eta egoera historiko ezberdinak eskaintzen duten ikuspegitik hobeki uler genezake Vatikanoko II. arearen handitasuna. Gure oraingo egoeratik testuak berriro irakurtzean harrিতa gelditzen gara behin baino gehiagotan, haietan dauden irakaspen, gomendio eta ñabardurak ikusirik. Bidea markatzeko eta gogoa pizteko ezin agortuzko ahalmena duten dokumentuak”.

Paulo VI.a, Kontzilio “birtualaren” martiria

Zelako eragina eta efektua izan eban Vatikanoko II. Kontzilioak Parisko 68ko altxamenduan? Kontzilioko makina bat testu agertu ziran errebolta-rien propagandan eta mitinetan. Batez ere “Lumen Gentium” eta “Gaudium et Spes” konstituzioak izango dira aipatuena.

Baina hasieratik esan behar da, egiazko Vatikanoko II. Kontzilioaren espirituarekin eta dokumentuekin, ez daukala zer ikusirik 68ko iraultzak. Bai, oster, egiazko Kontzilioa amaitu eta segidan sortu zan Kontzilio “birtualarekin”. Hainbat komunikabidek asmatutako Kontzilioa dogu hau. Mendebaleko komunikabideak urdaila beteriko teologo eta pentsalariak, egoismoz eta hedonismoz usteldutako gizarteak xaxatuta. Eta beste asko, hegoaldekoak batez ere, marxismoaz liluratuta lurereko paradisuaz ametsetan... Honen eta haren eskuetan, egiazko Vatikanoko II. Kontzilioa bahituta geratzen da. Berehalaxe hasten dira oihuka Vatikanoko III. Kontzilioa eskatzen. Euron amets nagusia: “recedant vetera, nova sint omnia”. 68ko maiatzaren barrikadetan makina bat abadegai eta erlijiosogai izango dira protagonista. Baita hainbat gazte-talde ere euren kapilauak buru dirala. Eliztarrak zatituta aurkitzen dira. Asko alde eta beste asko kontra. Seinalatua Parisen ospatutako Meza ekumenikoa. Egun batetik bestera uste eben koitaduek lortuko ebela ekumenismoa. Seminarioak eta Nobizio-etxeak erreskadan hustuz doaz. Fourviereko jesuita-gaiak eta hainbat

seminaristak ez dabe nahi abadetzako sakramentua hartzerik ere. Abade asko eta asko euren sotanak eskegi eta badoaz beste Eliza barri bat asmatzera. Han eta hemen eliz esperientzia barriak ugaritzen. Historian zehar sortutako hainbat heresia suspertzen dihardue barrikuntza lez. “Eliza 2000. taldea”ren proklamak ditugu gure artean ispilu. Psikosi- protestaz inguraturiko giroan bizi ditu Elizak Kontzilio ondorengo urteak. Esaterako, Paulo VI.aren “*Humanae vitae*” edo “Elizaren kredo” edo “*Sacerdotalis coelibatus*” dokumentuen aurkako protesta iraingarrienak eliztarren aldetik datoz. Paulo VI.a dogu Kontzilio “birtualaren” martiri nagusia. Aurtengo urriaren 14an izango da aldaretara jaso! Bazan ordua bere memoria errebindikatzeko!

Kontzilio “birtualak” ia irunsi egingo dau egiazko Vatikanoko II. Kontzilioa. Kontzilio bion testigu nazan ezkerro, San Pauloren berbak galaziarrei egindako kartan, erabiliko ditut bata eta bestea bereizteko. Kontzilio “birtualaren” emaitzak: “fede eza, areriotasuna, haserrea, inbidia, gorrotoa, norgehiagokeria, alderdikeria, zatiketak, ikusiezina eta holako grinak” (cf. Gal 5, 20). Egiazko Vatikanoko II. Kontzilioak, oster, Espiritu Santuaren fruituak ditu nabari: “fedea, maitasuna, poza, bakea, pazientzia, bihotz-ona, leialtasuna, otzantasuna, onginahia” (cf. Gal 5, 22-23)

Kontzilio “birtualak” itzelezko kaltea egin deutso Joan XXIII.aren eta Paulo VI.aren Vatikanoko II. Kontzilioari. Hala ere, apal eta umil aurrera doa. “La verdad padece pero no perece”, inoan Teresa Avilakoak.

A. Olea